

# KANALAK

Gure produktua bezerora iristeko sare sozialen erabilpena egingo dugu, iragarkien bidez. Instagram, Twitter, eta abar sare sozial erabiliko genituzke gure produktua gazte guztiei iristeko, eta honi buruz informazioa emateko. Gure hartzaile nagusia gazte jendea denez, hauek maiz kontsumitu ohi dituzten plataformak erabiliko ditugu, hauentzat erakargarriak izango diren formatuak erabiliz: Tik Tok-en bideo motzak, Instagram-en historiak eta Reel-ak, eta abar.

Bideoetan nor garen eta zer egiten dugun azalduko genuke, gure aplikazioa eta honen erabilpena ere erakutsiz. Gure helburu nagusia helarazi ondoren, hauei gure aplikazioa deskargatzera bultzatuko ditugu, erabiltzaile bihur daitezzen.

Gainera, gehienbat aplikazioa gazteei bideratuta dagoenez, batxilergo ikasketxetara hitzaldiak ematera joango ginateke.

